

Duatloia ♦ Euskal Herriko Zirkuituko hirugarren jardunaldia jokatu da bihar Oñatin

Bi duatloi asteburuan

Etzi herri mailako proba izango da Tolosan

Erredakzioa / Donostia

BI DUATLOI jokatu dira asteburuan Euskal Herrian; biak Gipuzkoako herrialdean. Aurrena Oñatin izango da, bihar, arratsaldeko lauretatik aurrera. Hain zuzen, Euskal Herriko Zirkuituaren hirugarren jardunaldiko proba izango da orduan -aurreneko biak Bizkaian izan ziren: Basaurin eta Barakaldon-, eta atletek lehendabizi zazpi kilometro egingo dituzte lasterka, gero berrogei bizikletan, eta, bukatzeko, hiru kilometro eta erdi lasterka. Bizikletan Oñatitik atera eta Legazpi, Urretxu, Deskargaiko gaina eta Bergaratik pasatuko dira, Oñatin bukatzeko. Euskal Herriko Zirkuituko bigarren proban, Barakaldon, Asier Bilbao izan zen garaile, eta bihar ere hura izango da faboritoetako bat. Fernando Gomez eta Iñaki Bodegas -gaur egungo txapelduna- izango dira beste hautagaiak, nahiz eta Bodegas bera oraindik bete-betean ez egon. Nesketan, Aintzane Argaitz eta Ana Casares -Basaurin irabazle- izango dira faboritoak.

Etzi, berriz, Tolosan jokatu da duatloia: Javier Urkolaren omenezko III. Duatloi Herrikoa. Proba goizeko hamaiketan hasiko da, eta partehartzaileek lehenda-



Partehartzaile bat, duatloi batean.

bizi bi kilometro egin behar dituzte lasterka, ondoren hamalau kilometro bizikletan, eta, azkenik, bi kilometro lasterka. Antolatzaileek diote iazkoa «arrakastatsua» izan zela, eta aurten ere parte-hartze hari eustea dutela helburu. «Gainera, Tolosaldean aukera litekeen

ibilbiderik erakargarriena eta egokiena da», eta antolatzaileek uste dute ez dela fisikoki oso-oso ondo egon behar proba bukatu ahal izateko. Duatloia soil-soilik herri mailakoa da, eta aurrenak ez du saririk jasoko. Igandean bertan ere izena emateko aukera izango du

edonork. Proba amaitu eta gero, hamaiketako izango dute partehartzaile guztiek Tolosan plazako herriko tabernarietara eskainita, eta, era berean, parte hartuko duten guztien artean Shanti Kirolak etxearen eskutik opari sorta zabal baten zozketa egingo da.


Saskibaloia ♦ Zalgiris, Teamsystem eta Olympiakos dira sailkatu direnak

Hiru talde Lauko Finalean dira jada

Erredakzioa / Donostia

ZALGIRIS (Lituania), Teamsystem (Italia) eta Olympiakos (Grezia) jada sailkatu dira München Lauko Finala jokatzeko, atzo final-laurdenetako bigarren garaipena lortu zutelako.

Zalgirisek Efes Pilsen kanporatu zuen. Asteartean baino errazago irabazi zuen, gainera, Efes Pilsenen etxean: 70-84 (asteartean 69-68). Bigarren zatian oinarritu zuen garaipena, atsedenera puntu bakar bateko aldearekin joan zelako. Edney izan



zen Zalgiriseko onena, 20 punturekin.

Teamsystemek ere lortu du txartela, atzo ere irabazi egin ziolako Real Madridi: 65-76.

Kinderrek, berriz, ikaragarriko bigarren zatia egin zuen atzo (43-45 zihoan galtzen atsedenean eta gero 93-75 irabazi zion Orthezi), eta oraingoz salbatzea lortu zuen. Ostegunean jokatu da Orthez-Kinder lehiako hirugarren partidua.

Laugarren kanporaketan, Olympiakos atzo ere gailendu egin zitzaion Villeurbanneri: 77-81.

Eskubaloia ♦**Barcelona, finaletik urrats batera atzo irabazita**

Nahikoa erraz irabazi zion Palau Blaugranan Ciudad Real taldeari: 31-23

Barcelona	Ciudad Real
31	23

Barcelona. Svensson, Masip (6, 2p), Dedu (1), Urdangarin (3), Cavar (2, 1p), Guijosa (6, 4p), Ortega (5, 1p) -hasierako zazpikoa-; Barrufet, Xepkin (2), Lozano (1), Garralda (2), O'Callaghan (3).

Ciudad Real. Jordi Nuñez, Fernandez (3), Bebeiko (6, 3p), Israel (5), Hermida (1), Lubian (2), Trives (6) -hasierako zazpikoa-; Romero, Grebnev, Jimenez, Marique, Vidal.

ATSEDENEAN: 16-11.

ARBITROAK: Huelin, Breto. Bi minuturako kanporatuak: Urdangarin (2), Xepkin (2), Masip, Guijosa, Hermida, Lubian, Jimenez, Grebnev.

Erredakzioa / Donostia

BARCELONAK eman du jada berriz ere Asobal Ligako finala jokatzeko pausoa, atzo finalerdiko lehen partiduan irabazi egin ziolako Ciudad Real bartzelonan bertan. Finalerdiko bigarren partidua astelehenean jokatu da, eta Barcelonak han ere irabazten badu finalean izango da, Portland San Antonioren edo Ademar Leonen kontra.

Ez zion aukerarik eman atzo Barcelonak Ciudad Real, nahiz eta partiduko lehen minutuetan gauzak pare-parean egon: bosgarren minutuan bina zeuden, eta hamargarrenean launa. Baina gero segituan hartu zuten kataluniarrek alde, eta harrezkero oso partidu lasaia jokatu zuten. Garrantzitsua izan zen Masipek eta O'Callaghanek defentsan egin zuten lana, batez ere 5-1eko defentsa egiten zuenean Barcelonak.

Erasoan ez zuten etxe-koek aparteko gauzarik egin, baina, hala ere, 31 gol sartzeko gauza izan ziren. Oso ekipo ona da eta.